

BIOTERRA 2024-ko IRIZPIDEAK

1. Nekazaritza ekologikoko elikagaiak eta nekazaritza ekologikorako produktua

Nekazaritza ekologikoko produktuen artean, indarrean dagoen araudi komunitarioan xedatzen diren produktu ekologikoetarako arauen arabera egiaztatutako produktuak bakarrik onartuko dira. Europatik kanpoko herrien kasuan, onartu egiten dira indarrean dagoen araudi komunitarioaren ondorioz aitortutako kontrol-autoritate batek ziurtatutako produktuak. Bietan ziurtagiriaren kopia aurkeztu behar da. Nekazaritza ekologikoan erabil daitezkeen produktuei dagokienez (ongarriak, landareen edo animalien osasunerako produktuak, substratuak, haziak, etab.), kasuaren arabera, ziurtagiridunak izan beharko dute edo, bestela, araudi honek xedatzen duen nekazaritza ekologikoan erabiltzeko aukera duten produktuak izan.

2. Kosmetika

Produktu ekologiko gisa ziurtatutako kosmetika, erakunde ofizialetako batek gutxienez: Ecocert, Natrue, Bio Inspecta, BDIH, soil Association, Cosmos, Cosmebio, Demeter, etab. Erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri ofiziala aurkeztu behar da. Hauen aipatutako organismoen ziurtagiria lor dezaketenak izango dira eta, beraz, INCI osieran deribatu petrokimikorik edo sintesi kimiko puruaren bidez lortutako osagaiak ez dutenak, edo genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak ez dituztenak. Ez da onartzen animaliekin edozein fasetan edo azken produktu gisa esperimintatu den kosmetikorik. Salbuespenik gabeko produktu kosmetiko orok osasun-erregistroa izan behar du.

3. Jantziak eta osagarriak

Produktu ekologikoen ziurtagiria duten jantziak onartuko dira. Ziurtagiriaren kopia aurkeztu behar da. Jantzi eta osagarri naturalak ere onartzen dira, hau da, zuntz naturalez egindako gaiak baino ez dira onartuko, gai sintetikorik gabea, nahiz eta gai sintetiko hori birziklatua izan. Ez dira onartzen metal astunik edo amina pozoitsurik duten koloreztatzaileez tindatutako ehun-gaiak. Artelazkia edo larrua duten ontze begetaleko oinetakoak onartzen dira, gai horiek oinarrizko osagaia izango dira barne-zolarako; zolaren kasuan, birziklatutako gomazkoak edo kautxu elastikozkoak izango dira. Josturez edo urez egindako itsasgarriaz josiko dira piezak. Ez da onartzen koloreztatzaile azoikorik ezta metal astunik ere produktu-osagai gisa. Larruzko gainerako osagarrietan ere ezin da kromoz ondutako larrurik erabili, eta ez dute osasunerako arriskutsua izan daitekeen itsasgarririk ere eduki behar.

4. Bioeraikuntza

Sektore hau material eta metodo ez-kutsatzaile eta jasangarriekin lan egiten duten eraikuntza sektoreko enpresek osatzen dute, edo ingurumena errespetatzen duten eraikuntza-sistemak hedatzea edo horietaz aholku ematea helburu duten zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek.

5. Energia aurrezteko produktuak eta zerbitzuak

Energia aurrezteko dakarren edozein produktu edo zerbitzu, berriztagarriak ez diren baliabideak aurreztuz (petrolio, ikatza, etab.) edo emisio kutsagarriak murriztuz. Energia-kontsumo txikiko aparatuak eta ohikoen ordezkoko beste energia batzuk fabrikatzen, banatzen edo instalatzen dituzten enpresak, ingurumen-inpaktuak murrizten dituztenak, hala nola eguzki-energia, energia eolikoa, etab. Ibilgailu elektrikoak, ibilgailu hibridoak, patinetak. Energia berriztagarrien merkaturatzaileak, bai eta autokontsumo energetikorako instalazioak erraztuko dituzten mekanismoak eta enpresak ere.

6. Kudeaketa ekologikoko ekimenak

Hondakinen bilketa selektiboa egiten duten enpresak dira eta horiek albat gehien aprobetxatzeari ekiten dioten enpresak ere bai. Halaxe dira prozesu horretan erabiltzeko produktuak edo elementuak egiten dituzten enpresak ere. Eta, baita beren hondakinak birziklatzeko eta hondakinak edo zaborrak egitea saihesteko ekimen pribatuko haiek ere. Garapen iraunkorra eta mundu zuzenago bat sustatzea helburu

duen ekimen publiko oro onartzen da. Garapen iraunkorra honela ulertu behar baita: pertsonen egungo beharrak asebetetzeko geroko belaunaldien ahalmena arriskuan jartzen ez duen garapena.

7. Editorialak eta argitaratzeak

Erakusgai jartzen diren liburuek ingurumena, ekologia, nekazaritza biologikoa, energia berriztagarriak, birziklatzea, osasuna eta ongizatea eta abar izango dituzte gaitzat; oro har, azokan dauden sektore guztiekin zerikusia duten guztiak.

8. Habitat osasuntsua

Produktu egokiak onartzen dira iraunkortasunari, osasunari edo bidezko merkataritzari dagokienez. Atal honetan altzariak, etxeko osagaiak, garbiketarako gaiak eta detergenteak, aire- eta ur-iragazkiak, sukaldeko tresnak eta abar sartzen dira.

9. Terapia naturaletarako osagarriak

Terapia naturaletan eraginkortasuna frogatua duten produktuak onartzen dira.

10. Ekoturismoa

Menuak, jardunak edo bisitaldiak antolatzen dituzten landa-turismoak dira. Nekazaritza ekologikoa, energia berriztagarriak, bioeraikuntza eta iraunkortasuna oro har hartuta da horien helburua.

11. Sendagai naturalak

Eraginkortasuna frogatuta duten elikadurarako osagaiak, landare sendagarriak, elixirrak, estraktuak eta esentziak onartzen dira.